

Mokozabalaren (*Platalea leucorodia*) eztei ondoko migrazioa Urdaibain



biodibertsitatea
eta paisaia
BIODIVERSIDAD Y
PAISAJE

2010



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA


 **ingurumena.net**

Dokumentua: Mokoabalaren (*Platalea leucorodia*) eztei
ondoko migrazioa Urdaibain

Edizio-data: 2010

Egilea: Rafael Garaita


Jabea: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde
Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila



INDIZE

1. HITZAURREA.....	3
2. METODOLOGIA.....	8
3.2 IRAUNKORTASUN DENBORA.....	14
3.3 GUNE ETA AKTIBITATEAREN ERABILPENA.....	19
3.4 AHALEZKO ASALDURAK HEGAZTIETAN PADURAN.....	26
3.5 MOKOZABALEN BENETAKO ARAZOAK	35
3.6. PADURETAKO PUNTU BELTZAK	38
3.7. ERAZTUNDUN HEGAZTIEN JARRAIPENA.....	40
3.8. MOKOZABALEN EZTEI OSTEKO MIGRAZIO PASEAREN EBOLUZIOA URDAIBAIEN. 1995-2010 URTEAK	45
3.9. SANTOÑAKO ETA PLAIAUNDIKO ESTUARIOEKIN ETA SALBURUAKO HEZEGUNEA ANALISI KONPARATIBOA.....	46
3.10. BESTE INTERESEKO ESPEZIE MIGRATZAILE BATZUEN PRESENTZIA	47
4. LABURPENA	56
5. BIBLIOGRAFIA	58
6. ESKER ONAK	61

ERANSKINAK



1. HITZAURREA


Mokozabala (*Platalea leucorodia*) hezeguneetan bizi den uretako hegaztia da, eta kutsadurarekiko oso sentikorra denez, ekosistemaren osasun ekologikoaren adierazlea da, gizakien jardueren ingurunean duten eragin kaltegarriaren benetako lekukoa. Izan ere, kontserbatzaileentzat, hezeguneen kudeaketaren arduradunentzat, zientzialarientzat eta ornitologoentzat hezeguneen babesaren sinboloa da.

Europa mendebaldeko hegaztien parte bat erregularitasunez agertzen da eztei migrazioen ostean, Mundaka-Gernikako estuarioan, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban, eta, horretaz gain, Txingudiako estuarioak (Gipuzkoan), hezegune arabarrak, Santoñako padurak eta Santanderreko badia (Kantabria) erabiltzen dituzte. Ezaguna da Urdaibaiko itsasadarrek duen garrantzia atseden eta elikadura gune gisa, mendebaldeko Europako mokozabalen migrazio ibilbideetan. Horri esker, Estatuko Gobernuak sinatu eta onartu dituen nazioarteko katalogo eta hitzarmenetan sartu da. Hauek dira hitzarmen horietako batzuk: Hezeguneak Babesteko Ramsar Hitzarmena; “IBAs” Hegaztiak Europan dituzten Gune Garrantzitsuen Katalogoa, ICBPk egina (International Council for Bird Preservation) eta Hegaztientzako Babes Espezialeko Gune gisa katalogatzea, 2000 Natura Sarearen barruan, Habitat Naturalak eta Flora eta Fauna Basatiaren Habitata Kontserbatzeko 92/43/CEE zuzentarauaren arabera sortutakoa.

Europa ipar-mendebaldeko mokozabalen eztei migrazioan zehar, hegaztietako batzuek bidai luzeak egiten dituzte –1.000 km baino gehiago–, eta horrek 2 edo 3 astez bidean gelditzera behartzen ditu, atseden hartu eta elikatzeko. Beste zenbait alek migrazio laburragoak egiten dituzte (200-400 km), eta denbora gutxiago behar dute bidaiarako indarrak hartzeko. Ekialdeko Kantauri Itsasoan egiten dituzten geldiuneak puntu garrantzitsua dira espeziearen migrazio ibilbidean, azken eskala bat egin dezaketelako Penintsula Iberiarra zeharkatu aurretik, azken tarte horretan ez baitute ia geldialdirik egiten.

Mokozabalak 80-90 cm-ko luzera du, 120-135 cm-ko hedadura eta 1.800-2.400 gramoko pisua. Hanka luze beltzak, lepo luzea eta oso moko bereizgarria du, zapala eta handia. Mokoaren forma berezia elikadura motarekiko egokitzapena da. Arren mokoa emeena baino zertxobait handiagoa da, eta muturrean orban horia du, alearen arabera aldatu ohi dena. Lumak zuri horixkak dira, eta orban laranja eta horia dute paparrean. Araldian, laranja koloreko luma luzeagoak hazten zaizkio lepoaren hasieran, lepokoa bailitza. Gazteak ere zuriak dira, baina lehenbiziko lumek mutur beltzak dituzte; hegan egiterakoan hobeto nabaritzen da hori. Gazteen mokoa arrosa arrexka kolorekoa da lehen bizitza urtean, eta ilunduz joaten da adinarekin.

Espezie koloniala da, eta maiz kolonia mistoak egiten ditu beste espezie batzuekin batera: lertxunak, lertxuntxoak, ubarroak eta kaioak. Zuhaitzetan edo lurrean egiten du habia, padura edo dunen landareen artean. Ugalketaren dinamika hazkuntza guneetako uholdeek edo ur eskasiak baldintzatzen dute, batez ere Mediterraneoaren inguruan. Ugalketaren arrakasta elikagai eskuragarritasunaren eta/edo harraparien araberakoa da eta baita klimaren araberakoa ere, udaberriko euri jasak eta txingorra batik bat. Europa iparraldean, ohiko hazkuntza epea apirilean edo maiatzean hasten da, baina Espainiako hegoaldean zenbait kolonia jada urtarilean edo otsailean eratu daitezke, egoera meteorologikoak eta hidrikoak aldekoak badira.



3 edo 4 arrautza jarri ohi dituzte, eta bikoteen emankortasuna urteen eta/edo kolonien arabera den arren, 1,5 eta 2,5 txita izan ohi dituzte bikoteko eta urteko. EAE iparraldean, populazio atlantikoak kolonia holandarrak dira, eta 1,9 txita izan ohi dituzte bikoteko eta urteko.

Eraztun zientifikoei esker, badakigu espezie honek hilkortasun handia duela gazteen artean. Urteko txiten erdia baino gehiago Afrikatik egindako migrazio bidaian hiltzen dira. Bidaia amaitzen duten hegazti gazteak Afrikan geratu ohi dira heldu bilakatu arte, eta 3 edo 4 urte betetzean, hazkuntza guneetara itzultzen dira.

Lehen 3-4 bizitza urteetan, hilkortasun tasa % 75 da, eta gazteen % 25 soilik heltzen da. Aitzitik, hegazti helduak luze bizi daitezke eta 30-34 urte bete, nahiz eta batzuetan iraupena 10 eta 20 urte artean dagoen.

Elikadura habitatak eremu urtarrak dira. Europa mendebaldeko populazioak marea guneak erabili ohi ditu, eta Europa erdialdekoak eta ekialdekoak, berriz, laku artifizialak, arrain haztegiak eta urak hartutako eremuak. Elikaduraren oinarria arrain txikiak, krustazeoak eta uretako beste ornogabe batzuk dira, baina anfibio txikiak eta uretako landareak ere jan ditzakete.


Hedadura paleartiko zabala du, eta habiak puntu sakabanatu batzuetan egiten ditu: Europatik hasita Txinara arte, Indian, Itsaso Gorrian eta Afrika iparraldean. Gaur egun, populazio txikietan sakabanatuta dago, berezko hazkuntza eremua murriztu egin da –kolonia askoz gehiago zeuden lehenago–, gizakien eraginez eta pasadan mendeko hamarkada batzuetan hezeguneak desagertu direlako.

Mokozabala *Threskiornithidae* familiakoa da, eta lau azpiespezie daude:

- *Platalea leucorodia leucorodia*, azpiespezie izendatua da, eta mokoaren amaieran orban horia du bereizgarri. Azpiespezie honek bi populazio ezberdin ditu: populazio atlantikoa edo mendebaldekoa, eta Europa erdialdeko eta ekialdekoa.
- *Platalea leucorodia major*, azpiespezie izendatuaren oso antzekoa da, baina txikiagoa tamainaz. Egile batzuek ez dute azpiespezietzat hartzen (del Hoyo *et al*, 1992). Habia egiten du Europa ekialdean (Azov itsasoaren ekialdean) eta Asia ekialdean, eta zenbait kolonia daude Txina ekialdean.
- *Platalea leucorodia balsaci*, azpiespezie honen bereizgarria da helduek mokoaren erabat beltza dutela. Afrika mendebaldeko kostan dago soilik, batik bat Banc d'Arguin-en (Mauritania).
- *Platalea leucorodia archeri*, *balsaci* azpiespeziearen modukoa da, baina txikiagoa. Afrikan kokatzen da, Itsaso Gorriaren inguruko herrialdeetan.

Lehen bi azpiespezieak izaera migratzailea dute, eta azken biak ez dira migratzaileak eta beste azpiespezieekin batera egoten dira neguan.

Munduan, 65.000-142.250 ale daude gutxi gorabehera (Triplet *et al*, 2008), eta horietako % 50-75 Europan dago. Gaur egun, Europa mendebaldean dauden aleak lehengoratzten ari diren arren, espeziea murrizten ari da populazio gehienetan eta bereziki Mauritanian (Banc d'Arguin), Errusian eta Turkian.



Europan 9.800 eta 10.800 bikote daude, *P. l. leucorodia* azpiespeziekoak. 2 populaziotan banatuta daude, eta harreman gutxi daude beren artean:



- Populazio atlantikoa edo mendebaldekoa, bi ugalketa nukleo oso garrantzitsurekin: bata Espainia hegoaldean, Andaluzian batez ere (1.614 bikote errolatu ziren 2007an, Máñez eta Rendón-Martos, 2009an) eta beste bat Holandan (2.315 bikote 2010ean, Otto Overdijk-ek pertsonalki adierazita).
- Beste herrian bikote ugaltzaileak daude baita ere: Francia (342-416 bikoteak 2009an, Loic Marion-ek pertsonalki adierazita), Belgica, Dinamarca eta Alemania, 14, 21 eta 254 bikoteak 2010ean hurrenez hurren (Otto Overdijk-ek pertsonalki adierazita), Gran Bretaña (6 bikoteak 2010ean, www.naturalengland.org.uk), Portugal (98 bikoteak 2006an, Otto Overdijk-ek pertsonalki adierazita) eta Marruecos (20 bikoteak 2004an, Otto Overdijk-ek, pertsonalki adierazita).

Populazio horrek joera positiboa du, urtez urte ale gehiago baitaude. Ipar Afrikako mendebaldeko kostaldeetako hezegunean igarotzen dute negua nagusiki, eta 19.000 hegazti egotera iritsi dira. Gune garrantzitsuenak Banc d'Arguin eta Senegaleko delta dira.

- Europa mendebaldeko eta ekialdeko populazioak habia egiten du Italian, Hungarian, Austrian, Kroazian, Ukrainian, Errumanian, Txekiar Errepublika, Eslovakian, Grezian, Turkian, Moldavian, Montenegron, Serbian eta Errusian. Estimaten da populazio hori 5.000 eta 6.000 bikote artean dagoela. Negualdi eremu batzuk soilik ezagutzen dira, eta 7.000 edo 8.000 bikote igarotzen dute negua han. Hala ere, uste da badirela ale ugari dituzten beste gune batzuk. Negualdi eremu ezagunak Tunezen, Niloko deltan, Itsaso Gorrian, Txad lakuan eta Nigerreko deltan daude.

Migrazio garaian, Euskal Autonomia Erkidegoaren iparraldean kumeak hazten dituzten hegaztiak batez ere Holandatik eta Frantziatik datoz.

Gainerako azpiespezietan, biologiaren alderdi asko ezagutzeke daude. Estimaten da *P. l. major* azpiespezietan 5.000 bikote daudela Europa ekialdean/Asia mendebaldean, eta 2.100 hegazti detektatu dira soilik, negualdi eremuetan, Pakistanen eta Indian (eta baliteke Sri Lankan eta Bangladeshen). Oraindik beste negualdi eremu batzuk daude ezagutzeke. Azpiespezie horrek populazio joera negatiboa du, gizakiaren jarduera dela eta (horien artean nabarmentzekoa da isilpeko ehiztariak). *P. l. balsaci* azpiespeziea Mauritaniako endemikoa da, eta habia egiten du soilik Banc d'Arguin-en, eta bikote kopurua murriztuz doaz. Izan ere, gaur egun 750 bikotek baino gutxiagok egiten du habia (3.100 hegazti), eta 1.600 bikote errolatuta zeuden 1985ean. Azpiespezie honek hilkortasun tasa altua du, habietako asko mareen urak hartzen ditu, eta, horretaz gain, gazteetako asko harrapariek hiltzen dituzte. *P. l. archeri* azpiespezieak hazkuntza Itsaso Gorrian egiten du, eta 860 eta 1.200 bikote arteko populazioa.




1.Figura. Lau mokozabal azpiespezieen banaketa: (1) *Platalea leucorodia leucorodia*: (1a) mendebaldekoa edo atlantiko, (1b) Europa erdialdeko eta hegoaldekoa, (2) *Platalea leucorodia major*, (3) *Platalea leucorodia archeri* eta (4) *Platalea leucorodia balsaci*.

Europar, mokozabala murriztuz joan zen XX. mendearen bigarren erdialdean, gaitzak eta hezeguneen galera zirela eta. 90. hamarkadatik, hezeguneak babesten eta lehengoratzen hasi ziren, eta, horri esker, espezieak joera positibo orokorra izan du, zenbait herrialdetan izan ezik, hala nola, Errusia, Ukraina edo Turkia, nahiz eta urtez urte aldaketak egon diren baldintza meteorologikoen eraginda.

Mehatxu handienetako bat elikatu eta ugaltzeko habitaten galera da. Horregatik, gero eta gehiago onartzen da beharrezkoa dela inguru horiek mantendu eta lehengoratzea, horiek babestuz. Horrela, populazio atlantikoaren eta Europa erdialde eta hegoaldeko populazioen ugalketa gunek babesten ari dira, eta baita ere Afrika mendebaldeko gunek nagusiak (Banc d'Arguin, Diawling eta Djoudj), Tunezen negua igarotzeko erabiltzen dituzten gunek, Turkia eta Errusia hegoaldeko ugalketa eremu batzuk, Iraneko negualdi eta ugalketa eremuak eta Pakistan eta Indiako negualdi eremuak. Hala ere, badira oraindik babestu gabeko eremuak edo behar bezala babestu gabeko eremuak.

Beste mehatxu handietako bat isilpeko ehiztariak dira, zuzenean hiltzen baitituzte eta trabak sortzen baitizkiote, eta, horren ondorioz, egokiak diren zenbait habitat ez dira erabiltzen. Kaspio itsasoan gertatu ohi da hori, batik bat Iran ekialdean, Turkmenistanen, eta Afganistanen. Halaber, Egipton —ehiza festak antolatzen dira bertan—, Sudanen eta baliteke Pakistanen ere mehatxatuta egotea.



Badira espeziea mehatxatzen duten beste traba asko (arrantza, nekazaritza, turismoa...), hegaztiak habitata utzi behar baitute oinarritzko elikadura, atsedena eta garbiketa beharrak ase gabe, eta, horren ondorioz, aleak ez daude beren baldintzarik onenean.

Hondakin industrialak eta fumigatzeak espezieak jasaten dituen mehatxueta beste batzuk dira. Hondakin industrialek lumak zikintzen dituzte eta/edo jakiak kutsatzen dituzte, eta ugalkortasuna kalte dezake. Fumigatzeak, hala nola, DDTa, oraindik ere Afrikako arroz uztetan erabiltzen dira, eta, horien ondorioz, pozoiz kimikoak metatzen dituzte gorputz koipean. Jakiak eskasak direnean, koipe erresebak erabili behar dituzte. Horren ondorioz, animaliak ez daude horren erne, eta bigarren mailako arrazoiengatik hiltzen dira (tiroak, talkak linea elektrikoen kontra).

Mokozabala espezie mehatxatua da, eta, egun, honela katalogatuta dago:


- **SPEC 2**, hau da, espezieek populazioak Europan dituztenean eta kontserbatze egoera txarra denean (SPEC -Species of European Conservation Concern; BirdLife International, 2004).
- **Kezka arina (LC)** UICNeren Zerrenda Gorrian.
- **Interes Berezikoa**, 439/1990 Errege Dekretuaren Espezie Mehatxatuen Katalogo Nazionala (CNEA). Naturaren eta Bioaniztasunaren Ondareari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea argitaratzean, CNEA Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogo bihurtzen da, eta, bertan, soilik bi hauek hartzen dira mehatxu kategoriatzat: “Desagerpen arriskuan” eta “Ahula” eta Interes Berezikoko espezieak Babes Berezikoko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrenda, eta, horregatik, kontserbatze egoera aldizka ebaluatzen da. CNEA lege berrira egokitzen ez den arte, mokozabala Interes Berezikoa izaten jarraituko du.
- **Ahula**, maila nazionalean (Espainiako Hegaztien Liburu Gorria, 2004).
- **Ahula**, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan (1997ko uztailaren 8ko Ordena).

Gainera, espezie hau sartuta dago:

- Hegazti Basatien Kontserbaziorako Zuzentarau Europarraren I. Eranskina. Bertan, EBko estatututako kideek konpromisoa hartzen dute eranskin horretan dauden espezieen habitata mantentzeko neurria agintzeko.
- Migrazio Hegaztien Kontserbazioari buruzko Bonnekoko Itunaren II. Eranskinak sustatzen du habitat sare egoki bat sortzea, eranskinetan dauden espezieen ibilbideetan.
- Bizitza basatia eta ingurune naturala kontserbatzeko buruzko Bernako Itunak zorrozki babestutako espezieak jasotzen ditu.

Horregatik guztiagatik, mokozabala Urdaibaiko Biosferaren Erreserban dagoen fauna espezieetako bat da, eta espezie hori kontserbatzeko konpromiso handia dago. Ildo horretatik, –eta Urdaibaiko Patronatuak egin dituen ikerketen testuinguruan, lurraldea hobeto ezagutzeko, ingurune kudeaketa hobetze aldera– espezie zorroztasunez jarraitzen ari da.

1994an eta 1995ean, espeziearen lehen errolda zehatzak egin ziren (Franco, 1995; García, 1996a), Urdaibaiko mokozabalak zenbatzeko eta beren migrazio fenologia, espazioaren erabilera eta espeziea paduran kontserbatzeko arazoak ezagutzeko. 1996an, erabateko ikerketa sistematikoak egiten hasi ziren migrazioaren parte handi batean, eta, zehazki, erroldatzaile talde batek 20 eguneko errolda egin zuen, irailaren 10etik 30era (García, 1996b). Dena dela, epe hori laburregia zen, eta migratzaileen gutxieneko kopurua ere izan liteke, migrazio fluxuaren gehiengoa errolda epetik



kanpo bazegoen. Horregatik, epe hori iraila osora zabaldu zuten 1997an eta 1999an (García, 1997; 1999). Ildo beretik, 2000, 2001 eta 2002 urteetako erroldak (García, 2000, 2001; Garaita *et al*, 2002) 40 eguneko iraupena izan zuten (irailaren 1etik urriaren 10era arte).

Aurreko urteetan, abuztuan Urdaibaiko mokozabalek migrazioa egin zuten, 2002 urtean bezala, eta 2003 urtetik ikerketa epea zabaldu zen eta abuztuko azken egunak ere sartu zituzten – abuztuaren 21etik urriaren 10era arte—. Horrela, 51 eguneko errolda ezarri zen, migrazioan dauden hegazti gehienak detektatzeko epe nahikoa (del Villar *et al*, 2003; Garaita *et al*, 2004; del Villar eta Garaita, 2005; Garaita eta del Villar, 2006, 2007 eta 2008; Garaita, 2009).

Ikerketa horiek mokozabala hobeto ezagutzera laguntzeaz gain, eta aukera eman du ebaluatu ahal izateko Urdaibaiko Biosferaren Erreserbak espeziea kontserbatzeko duen garrantzia, espezieak Erreserban dituen arazoak eta jokaera eredu orokorrak.

Era berean, migrazio biologiararen ikerketan laguntzeko, 2000 urtetik eraztuna daramaten hegaztien koloretako eraztunak irakurri dira.

Gainera, Urdaibaiko mokozabalaren biologiari lotutako hainbat alderdi, hala nola, kopurua eta egonaldiak, estuarioak denboran zehar izan duen ingurumen kalitatea baloratzeko balio izan dute.


2. METODOLOGIA

Lan honetan erabilitako landa metodologia aurreko urteetan jarraitutako berdina da. Etengabeko jarraipena egin zaie argi ordu guztietan zehar abuztuaren 21etik urriaren 10era arte, hau da, 641 behaketa ordu.

Lehentasunezko behaketa lekuak Gautegiz-Arteaga eta Lagako hondartza lotzen dituen Bi-3234 errepideko bi puntu finko izan dira, 40,5 eta 41,5 kilometro puntuetan, eta azken hori izan da erabili izan dena gehienbat. Bi behaketa puntuetatik Urdaibaiko padura nagusia ikus daiteke, eta hori da mokozabalek atsedenerako erabiltzen duten eremua. Padurak Axpe-Busturia eta San Kristobal auzoen arteko gunea ibaiadarraren ezkerrean eta Isla Goikoa eta Kanala auzoen arteko gunea eskuinaldean. Maiztasun txikiagoz bada ere, Baraiz paduretan Gautegiz-Arteagan, eta, beraz, hezegune hori ere behatu da, errepide beretik hezegunea behatzen da, beste puntu batetik (**2. eta 3. figurak**).

Erabilitako material optikoa 20-60 handiagotzeko lur teleskopioa eta 8 handiagotzeko binokularrak izan ziren. Eraztunak irakurtzeko, bigarren behatzaile batek parte hartu zuen, lehenaren gidaritzapean hegaztietara egokitasunez eta oztopatu gabe hurbil dadin.

Behaketetan zehar, sartu edo irteten ziren hegaztiak, erabilitako espazioa eta estuarioko mokozabal guztien mugimenduak erregistratu ziren, eta, horretarako, 15 minuturo hegazti bakoitzaren jarduerak idazten ziren. Irakurketa bakoitzean, jarduera mota hauek ezberdindu ziren: elikadura, hegaldia, joan-etorriak lurrez, garbiketa, erne atsedean hartzea (lepoa tente) eta lo egitea (burua bizkarrean tolestuta).




Harrapaketen arrakasta ere estimatu da, hegaztiak zuzenean behatuz, harrapakin bat hartzean albo batera mokoarekin mugimendu azkarra egiten baitute irentsi baino lehen.

Orduro, mokozabalei traba egin diezaieketen oztopoak erregistratu ziren (itsasontziak, turistak, ornitologoak, arrantzaleak, itsaski arrantzaleak, txakurrak eta beste batzuk). Era berean, hegaztien izandako benetako oztopoak, eta mokozabalak izutu edo ihesarazi dituzten oztopo bakoitzaren arrazoiak, hegaztien erantzunak eta izandako eragozpenak erregistratu ziren.


Hartutako datu guztiak landa fitxa batean erregistratzen ziren, eta fitxa eredu *I. eranskinean* dator.

Urdaibaik mokozabalaren migrazioan gure testuinguru geografikoan duen garrantzia baloratzeko, inguruko paduretako lan taldeekin harreman mantentzen dute, hala nola, Santoña (Kantabria), Txingudi (Gipuzkoa) eta Salburua (Araba).



Azkenik, mokozabalen eremu berean geldiunea egiten duten migrazio hegazti urtar guztien espezieak erregistratu eta zenbatu ziren, behaketa puntutik zorrotasunez identifikatu ahal zirenean. Espezie horiek izandako eragozpenak ere identifikatu ziren. Migrazio hegaztien artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste: arrano arrantzalea, lertxun hauskara, lertxuntxo txikia, ubarroi handia, kurlinta, abozeta.




Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena



2.Figura. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako eta mokozabalek lehentasunez erabiltzen duten padura-
rako eremuko kokapena.



3.Figura Mokozabalek erabiltzen duten padurak lehentasunez. Beheko aldean, Urdaibaiko padura nagusia irudikatu da (ezkerrean) eta erabilitako eremu berria: Baraizko padurak (eskuma), idazkietan erabilitako leku izen batzuk daudelarik.




3. EMAITZAK


3.1 MOKOZABALAREN PRESENTZIAREN KUANTIFIKAZIOA EZTEI OSTEKO MIGRAZIOAN

2010ean, Urdaibaiko eztei ondoko migrazioaren jarraipenak iraun zituen 51 egunetan, 735 mokozabal zenbatu zituzten guztira. 17 egunetan zehar sartu ziren, 43 alditan. Hegaztietako batzuk itsasadarrean egun bat baino gehiago egon dira, eta, beraz, 27 egunetan, mokozabalak egon dira paduran (4. figura).

2010ean, Urdaibaiko migrazio fenologia 2009. urtearen oso antzekoa izan da, eta iraileko bigarren hamabostaldiaren ostean gertatu da gehienbat. Abuztuan, hegaztiak ez dute mugimendurik egin, eta iraileko lehen hamabostaldian, 37 iritsiera egin dira soilik. Ziurrenik, ikerketa epeak eztei ondoko migrazioaren parterik handiena hartu du, nahiz eta errolda amaitu ostean jarraitu duen. Horrela, urriaren 11n, 163 hegazti iritsi ziren eta urriaren 12an 77 hegazti gehiago iritsi ziren, eta, beraz, urte honetan, 975 migrazio hegazti zenbatu dira Urdaibain. Balio hori EAE iparraldean dauden mokozabalen % 8 da gutxi gorabehera.



4.Figura. Eztei osteko pase migratzailea, egonaldia eta mokozabalen pase metatua Urdaibaien. 2010ko abuztuaren 21tik urriaren 10ra



1. taulan, mokozabalen iritsiera eztei ondoko migrazioko hamabostaldietan nola banatu diren (errola epetik kanpo emandako datuak sartzen dira). Bertan, ikus daiteke iritsiera gehienak azken bi hamabostaldietan gertatu direla: iraileko bigarren hamabostaldian, % 61, eta, urriko lehen hamabostaldian, % 35.

1.Taula. Mokozabalen helduerak migrazioan hamabostaldiro.



Hamabostaldiak	Mokozabal kopurua	%
Abuztuko 2. hamabostaldia	0	0
Iraileko 1. hamabostaldia	37	4
Iraileko 2. hamabostaldia	597	61
Urriko 1. hamabostaldia	341	35
Guztira	975	100

Aurten, baldintza meteorologikoak migrazio epean, iazko oso antzekoak izan dira. Egun bero edo oso bero ugari egon dira eta zero argiak, edota egun hodeitsuak egon dira tenperatura suabeekin. Oso egun hotz eta euritsu egon dira.

Aurtengo baldintza meteorologikoei esker, hegaztietako askok iparraldeko hezeguneetan denbora gehiago igaro dute, eta, hortaz, bidaiak luzatu edo atzeratu zaie. Aitzitik, aurreko urteetan egondako baldintza meteorologiko okerrak egon zirenez, hegaztiekin paduretara sartu behar izaten zuten aterpe bila, eta, klima "udatiarragoetan", ordea, hegazti gutxiago iristen dira. Badirudi aldeko baldintzak daudenean, mokozabalek nahiago dutela distantzia handiagoak egitea eta beste padura batzuetan gelditzea, hala nola, Santoña, edota, hegoalderantz bidaiak jarraitzea.

Horrela, 2010ean, 2009. urtean bezala, ez dira mokozabal ugari sartu Urdaibain iraileko lehen hamabostaldian, baina bai Santoñako paduretan (Kantabria).

Paduran sartzen diren hegazti kopurua aldatuz doa: banakako aleak, hegazti gutxitako taldeak, tamaina ertaineko taldeak edo 60 hegazti baino gehiagoko talde handiak (**5. figura**). Grafikoan ikusten denez, talde gehienak 6 eta 30 ale artean dituzte, eta oso gutxi iristen dira bakarrik edo 30 ale baino gehiagoko multzoetan.



5.Figura. Urdaibaien sartzen diren taldeen kopurua eta talde bakoitzaren tamainiaren arteko erlazioa (ale kopurua) Ikerketa tartea: 2010 abuztuak 21-urriak 10.


3.2 IRAUNKORTASUN DENBORA

Ikerketa epean kontrolatu diren 735 mokozabaletatik gehienak, hau da, % 83a (613 mokozabal) itsasadarrean geratu zen atsedean hartzera eta/edo elikatzera. Gainerakoak, % 17a (123 hegazti) paduren gainetik hegan egin zuen, eta, hainbat buelta eman zituzten, baina ez ziren gelditu. Iazko urtearen oso emaitza antzekoa da.

Errolda epean honako hau ikusi zen:


- Mokozabalen % 51 (375) egunean zehar sartu eta irten da, eta kasu horretan egonaldiaren iraupena zorrozki kontrolatu da.
- Mokozabalen % 48 (352) gauez sartu da, eta egunean zehar alde egin du itsasadarretik. Kasu horretan, eguneko iraupena kontrolatu da, baina ezin da jakin gaueko zein unetan sartu diren estuarioan.
- Mokozabalen % 1 (7) itsasadarrean geratzen ziren errolda amaitzean.

Gainera, baliteke gauen zehar mokozabalak sartzea itsasadarrean eta egunsentia baino lehen alde egitea. Beraz, baliteke gauez migrazioa ere egotea, eta hori ez detektatzea.



Mokozabalak Urdaibain dauden batz besteko denbora kalkulatzeko, gauean zehar sartu eta irten diren hegaztien egonaldiak iraupenaren hurbilketa egiten da. Hegazti horientzako (352) egonaldi balio zehatza esleitzeko, argi orduetan egon diren denborari (kontrolatu diren gutxieneko denbora), alea egon den eguneko gauaren erdia gehitu zaio. Hurbilketa hori aurreko urteetan ere aplikatu da, eta, hortaz, emaitzak alderatu daitezke.



Gauetz migratu duten hegaztien egonaldien hurbilketa egin ostean, lortutako emaitzak egunez migratu duten hegaztien (375) denborari erantsi zaie, eta geratu gabe igaro direnak alde batera utzi dira (123). Horrela, aurten, 7 ordu eta 23 minutuko egonaldia egon da batz beste. **6. figura**, migrazio erroldetan erregistratutako geldialdi denborak adierazten dira.



6.Figura. Mokozabalen egonaldiaren batezbesteko denbora Urdaibaien zentsu urte desberdinetan zehar.


Orokorrean, banakako aleak edo talde txikiak dira paduran egun bat edo gehiago geratzen direnak. Soilik bi mokozabal egon dira 24 ordu baino gehiago (14 eta 13 egun, hurrenez hurren), eta errolda amaitu ostean geratu dira.

7. figura, denbora tarte ezberdinetan paduretan atsedean hartzen edo elikatzen eman duten mokozabal kopurua. Lehen 12 orduetan, ordubeteko tarteetan adierazten dira, eta 12 orduak iga-
rota, orduak tarte ezberdinetan banatu eta maila zabalagoetan zehaztu dira, informazioa aurkeztea errazagoa izan dadin.




7.Figura. Mokozabalaren Iraunkortasun denbora Urdaibaien. Lerro gorriraino, denbora tarteak ordubetekoak dira. Tarte 2010 abuztuak 21-urriak 10.


Itsasadarrean emandako egonaldiaren iraupen denborak nola banatzen diren laburtzeko, denbora tarteak aurreko urteetan bezala taldekatu dira, eta, horrela, emaitza aurreko urteenaren antzekoa da. Aurten, hegaztien erdia baino gehiago (% 60, hau da, 441 ale) 6 ordu baino gehiagoz egon dira padurretan, eta % 40a (294 ale) 6 ordu baino gutxiago egon dira (**8. figura**).



8.Figura. Mokozabalaren egonaldiaren ordu tarteak Urdaibaien. Denbora tarteak: 2010 abuztuak 21-urriak 10.





9. figura, mokozabalek Urdaibaiko paduretan egindako egonaldiaren iraupenak azken 9 urteetan izandako bilakaera adierazten da. Labur aurkeztearren, denbora 3 tartetan banatu dira: <6 ordu, 6 eta 24 ordu artean eta >24 ordu.



9.Figura. Mokozabalen iraunkortasunaren portzentaiaren eboluzioa Urdaibaiko paduran bere eztei osteko migrazioan zehar azkeneko 9 urteetan.

Grafiko horretan, ikus daiteke iraupen tarterik txikienak (lerro gorria) beherako joera du urteetan zehar, eta 6 ordu baino gehiagoko tarteek (lerro urdina) goranzko joera dute.

10. figura, ikus daiteke mokozabalen joan-etorriak nola banatu diren denbora tarteetan zehar. Ordu tarte bakoitzean, sartu eta irten diren hegazti kopurua adierazten da. Horrela, esaterako, 8 eta 9 orduen artean 5 hegazti talde joan ziren, 303 mokozabal guztira.




10.Figura. Denbora tarte bakoitzean irteera kopurua eta Urdaibaitik alde egiten dutenen kopurua. Ikerketa tarte: 2010 abuztuak 21-urriak 10.

Errola amaitzerakoan, errolatutako 735 mokozabaletatik erregistratu zen 728 irten zirela eta 7 itsasadarrean geratu. Urdaibaitik alde egin duten taldeak jarraitzerakoan, ikusi zen bi irteera bide nagusi zituztela. Bideetako batek ipar-mendebaldera edo iparraldera egiten du, eta ziurrenik hegaztiak kostaldean zehar doaz eta beste padura batzuetan geratzen dira, hala nola, Santoñako padurak. Beste bidea hegoalderantz edo hego-ekialderantz doa, eta ziurrenik penintsula zuzenean zeharkatzen dute, barnealdeko hezeguneetan geldituoneak eginez.

Aurten, 9 irteerek (% 29) iparraldeko/ipar-mendebaldeko bidea hartu dute eta 12 irteerak (% 38,7) hegoaldeko/hego-ekialdeko bidea, eta ezin izan da gainerako 10 irteerek (% 32,3) hartu duten bidea zehaztu.

Hegazti kopuruari dagokionez, 345 iparraldera joan dira (hegaztien % 47,4) eta 223 hegoaldera (% 30,6), eta ezin izan da zehaztu gainerako 160 hegaztiak (% 22) nora joan diren.

Aurten, Urdaibain geratu diren mokozabaletatik 475 alek itsasadarra utzi dute migrazio senari jarraituz edo aterpea bilatzera behartu zituen klima egoera arindu ostean. Zenbaitetan, hegaztiak paduraren gainetik hegan egiteak erreserban zeudenentzat erakargarri izan zen eta sartzen ziren horiekin batera alde egiten zuten. Joateko beste arrazoietako bat jasandako eragozpenak izan dira, eta 253 hegazti itsasadarra behar baino lehenago uztera behartu ditu.




3.3 GUNE ETA AKTIBITATEAREN ERABILPENA


Gunerik erabiliena aurreko urteen berdina izan da, hau da, Urdaibaiko padura nagusia izan da, eta baita Baraizko padurak ere, baino askoz gutxiago.

1. mapan, 1995. eta 2009. urteen artean lortutako azalerak gainjarrita lortutako azalera ikus daitezke (gune urdina). Gune horrek padura azalaren erabilera islatzen du, hau da, 240 ha. gutxi gorabehera. Gune horren gainean 2010. urtean erabilitako azalera ezarri da (gune gorria), hau da, 152 ha.


2. mapan, ikerketan hartutako koadro bakoitzaren erabilera garrantzia ikus daiteke. Biribil horien azalera gunean emandako denborarekiko proportzioan dago. Mapetan ikus daiteke aurreko mokozabalak eremu hauek erabili dituztela: San Kristobal eta Axpe irlaren arteko padura (I koadroa), Axpe irlaren inguruak eta Errekaetxe ibaia (F koadroa), Kanal Nagusia (J koadroa) eta itsasadarraren ibilgu nagusiaren bi ibarrak (K, O eta S koadroak). San Kristobal ingurua (N koadroa) eta gainerako guneak (B, C, E, G, K, M, P eta X koadroak) gutxiago erabili dira.



1 eta 2 mapak. 2010.ko eztei osteko migrazioan Urdaibaiko mokozabalen kokapenak, eta paduraren erabilpenaren garrantzia (kuadríkula bakoitzean zirkuluak egonaldiaren denboraren arabera dira) .



3. eta 4. mapetan, atseden lekuak adierazten dira. Aurreko urteen irizpide berdinak jarraitu dira, eta “atsedentzat” hartu dira energia gastu txikia duten jarduerak (astiro ibiltzea, garbitzea, atsedena hartzea edo lo egitea). **5. mapan**, koadro bakoitzean atsedenean egondako denbora adierazten da, marea mota zehaztu gabe. Mapa horretan, zirkuluak denborarekiko proportzionalak dira.



3,4 eta 5mapak. Atsedenean guneak. **3.mapan** puntu horiak itsasgoran atsedenean lekuak irudikatzen dute, bertan mokoza-
balek leku altuetara bultzatuak dira, eta **4.mapan** puntu horiak beste itsasaldietan dauden atsedenean lekuak irudikatzen
dute (itsasbehera edo tarteko itsasaldiak); hauetan urak ez die hegaztiei paduraren erabilpena mugatzen. **5.mapan**
atsedenean gune bakoitzaren garrantzia irudikatzen du, kuadrikulako minutuko agertzen delarik. Zirkulu horien azalera
iraunkortasun-denboraren arabera da.


Itsasgoretan, mokoza-
balek Axpe eta San Kristobal arteko uhartetxoak erabili dituzte, ur gai-
nean isolatuta geratzen baitira (I eta J koadroak). Marea bizia zegoen egunetan, urak atsedenean leku
horiek hartzen zituen, eta, beraz, beste hegazti batzuekin batera (lertxun hauskarak, lertxuntxo txi-
kiak edo kurlintak, esaterako), Axpeko ibarretara eta inguruetara joaten ziren, eremu altuagoak
baitira. Aurten, laugarren urtea da inguru hori erabiltzen dutela itsasgora bizietan.

Bigarren urtez, ikusi da zenbait mokoza-
balek Axpe inguruan paduraren ertzetako zuhaitzak
erabili dituztela, lertxun txikiekin batera (B koadroa).

Itsasgoretan erabilitako beste guneetako bat trenbideen atzean dagoen istildutako gune bat
izan da, Axpeko geralekutik gertu, eta bertara joaten ziren paduretan egun bat baino gehiago igaro-
tzen zuten aleak.

Marea jaisten ari denean, orokorrean mokoza-
balek marea altuko leku berberetan atsedenean
jarraitzen dute, urak behera egin eta ibili eta elikatzeko gai diren arte.

Aurreko urteetan bezala, marea gora eta behera gisa hartu dira itsasgora eta itsasbehera
baino 90 minutu lehenago eta geroago.




Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena

Marea behean edo tartean dagoenean, mokozabalek eremu zabalagoa erabiltzen dute atsedean hartzeko. Gune hori osatzen dute elikatu ostean edo itsasadarrera iristean erabiltzen dituzten guneak (ikus **4. mapa**). Eragozpenik ez badago, gune horietan geratzen dira mareak mugitzera eramaten dituen arte, eta pixkanaka gune altuagoetara mugituz doaz.


Aurten, San Kristobal eta Axpe artean osatzen diren uhartetxo eta kanaltxoak (I koadroa) eta Axpe irlaren inguruak (F koadroa) izan dira atsedean hartzeko gehien erabilitako lekuak. Ostera, beste urte batzuetan itsasadarreko ibarrak, Anbeko irlan eratzen diren uhartetxoak edo Mape ibaia-aren ahoa erabili izan dira, eta ez hainbeste aurten.



Jaten amaitzen dutenean, mokozabalek elikatzen diren lekuan bertan atsedean hartzen dute, ez badute eragozpenik jasaten edo mareak ekiditen ez badu.



6. eta 7. mapetan, elikatzeko erabili diren lekuak adierazten dira. **8. mapan**, koadro bakoitzean atsedenean egondako denbora adierazten da, marea mota zehaztu gabe. Mapa horretan, zirkuluak elikatzen emandako denborarekiko proportzionalak dira.




6, 7 eta 8 mapak. Elikatze gunek. **6.mapan** itsasgoran elikatze aktibitatea ez dela egon ikusi daiteke eta **7.mapan** puntu horiak beste itsasaldietan (itsasbehera edo tarteko itsasaldiak) elikatzen diren puntuak dira. **8.mapan** elikatze-leku bakoitzeko garrantzia irudikatzen da, minutuak kuadrikulako. **Zirkulu horien azalera iraunkortasun denboraren arabera da.**

Itsasgoretan, mokozabalak ez dira elikatzen, eta soilik marea hiletan eta uraren mailak gutxi egiten duenean gora, ura sakona ez den lekuetan jaten dute (**6. mapa**).

Itsasgora ez denean, elikatzeko eremu istilduak eta itsasadarraren ibilgu nagusia erabiltzen dituzte. Aurren, eremu erabilienak Kanal Nagusia izan dira (J koadroa). Gutxiagotan bada ere, beste eremu hauek ere erabili dituzte elikatzeko (**7. mapa**): San Kristobal eta Axpe artean osatzen diren urmaelak eta kanalak (I koadroak), ibilgu nagusiaren bi ibarrak, ibilgu horren aldeetako erre-kastoak (O koadroa) eta Axpe irlaren eta ibilgu nagusiaren arteko hareatzeko gunek istilduak (F koadroa).



5. eta 8. mapek atsedenean eta elikatzen emandako denbora erakusten dute, hurrenez hurren, eta, horiek bi erkatuz, ikus daiteke atsedenean emandako denbora altuagoa dela.



Kanal Nagusiak emari nagusiarekin bat egiten duenean, itsasadarra erabiltzen dute urtez urte elikatzeke gunetzat, nahiz eta eragozpen ugari gertatu.

Mareak baldintzatu egiten du mokozabalek paduran emandako denbora. Elikagaiak aurkitzeko aukera ematen duten azaleko kanalak egoteko, uraren mailak baxua izan behar du. Beraz, itsasgoran atsedean hartzen dute eta ez dira elikatzen, eta, elikatzen badira, oso gutxi jaten dute eta mareak hilak egon behar dira.

Marea beheara doan heinean, mokozabalak bizkortzen dira, eta pixkanaka-pixkanaka harrapakinak bilatzen hasten dira. Itsasbeheran hegazti gehiago daude jardun horretan, nahiz eta zenbait atsedenean egon. Mareak gora egin ahala, urak gero eta sakonagoak dira, eta zailagoa da harrapakinak hartzea. Horregatik, mokozabalak elikatzeari utzi eta atsedenera doaz, elikatzeke erabili duten leku berean orokorrean (**11. figura**).




11.Figura. Itsasaldi desberdinetan egiten ditzuten aktibitateak.

Urdaibaiko padura nagusiaz gain, aurten zenbait mokozabalek Baraizko padurak bisitatu dituzte: barrualdean 6 kilometrora eta padura nagusitik 2-3 kilometro hegoaldera dagoen eremu istildua da, eta 13,5 hektareako hedadura du. Padura horiek izaera ezberdineko bi ur lamina dituzte, muino batez bananduta: lamina gazi bat, mareen erritmoaren arabera, eta lamina gozo bat, erreka baten urez hornitua.

9. mapan, atsedena lekuak adierazten dira. Orokorrean, eremua erabili duten hegazti kopurua txikia izan da, baina urriaren 11n eta 12an klima latza izan zen eta talde handiak heldu ziren.



9. mapa. Baraizko padurak. Puntu horiak mokozabalak atsedena ikusi diren guneak markatzen dute.




Paduran hainbat egun geratzen diren mokozabalak banakako aleak edo talde txikiak dira. Hegazti horiek heldu berri direnek baino konfiantza handiagoa dute eta padurako beste eremuak esploratzen dituzte. 2010ean, San Kristobal eta Axpe arteko eremua erabili dute gehienbat. Jada adierazi den bezala, eremu horretan uhartetxo eta ur kanaltxo ugari daude, eta ondorioz, hegaztiak ezin dute horren zaintza zorrotza egin, ikusmen eremu txikiagoa dutelako.

Aitzitik, heldu berri diren aleak lur hartzen duten lekuetan elikatu edo atsedean hartzen dute (ez badute eragozpenik jasaten). Eremu garbiagoak izan ohi dira, hala nola, ibilgu nagusiaren ibarrrak edo Kanal Nagusia, eta inguruaren ikuspegi zabalagoa eskaintzen dute. Hegazti horiek konfiantza hartu ahala, inguruko beste leku batzuk esploratzen dituzte.


Hegaztiak jarduera bakoitzean ematen duten denbora baloratu da, honela sailkatuta: atsedena, hegaldia eta elikadura (12. figura).

Grafikoan ikusten den bezala, aurreko denboraren % 60 ia atsedenean eman dute, batik bat egonean eta lo egiten. Elikatzen emandako denbora osoko denboraren % 20 izan da. Hegaldiak jardueraren % 20 hartu dute, ihes egiteko edo eragozpenek eraginda beste leku batera joateko bada ere.

Atzemandako harrapakin kopurua aldagarria izan da: minutu bakoitzeko 1 harrapakin bat hartzetik, 12 harrapakin hartzera arte, harrapakin ugari dituzten eremu istilduak aurkitzen bazituzten. Horrela, minutuko 5,2 harrapakin antzeman dituzte batzuek.



12.Figura. Mokozabalek paduran egindako aktibitate bakoitzaren proportzioa.




3.4 AHALEZKO ASALDURAK HEGAZTIETAN PADURAN

Mokozabalek Urdaibain gustukoen dituzten eremuetan aurkitzen duten arazoetako bat da gizaki ugari daudela, eta horrek hegaztiak izutu edo atsedenerako lur hartzen ekiditen die.


Aurreko urteetan bezala, gizakiek eragindako arazoak erregistratu dira, eta mokozabalen erabilera eremuari eragiten diote. Erregistro horretan San Kristobaleko eremua ere sartzen da. Aurreko urteen irizpide berdina jarraituz, 8etatik 20etara ikusitako eragozpen kopurua idazten zen.

Gizakiek asteburuetan sortutako eragozpenak aurreko urteetako eredu oso berdinak jarraitu zituzten. Goiz amaieran eta arratsaldean eman ohi da giza jardura gehiena, eta batik bat goizez. Bi une horien artean, giza presioa gutxitzen zen, "baskalordurekin" bat eginez. Lanegunetan, antzeko joera ikusten da, baina balio txikiago batean (**13. figura**).




13.Figura. Ahalezko arazoaren eboluzioa egunaren zehar. Lan Eguna (LE) eta Asteburuko Egunen (AE) arteko konparazioa.

Itsasadarrera joan ohi diren pertsona gehienak aisialdirako egiten dute, nahiz eta profesional gutxi batzuk dauden lanerako joaten direnak (itsaski arrantzaleak). Horregatik, itsasadarrean da goen pertsona kopurua haiek duten denbora librearen eta klimaren arabera da. Orokorrean, abuztu amaieran eta iraila hasieran, ikasle oporrak amaitu aurretik, jende gehiago egon ohi da. Asteburuetan lanegunetan baino jende gehiago egon ohi da, bereziki egun eguzkitsu eta beroetan.



Iraila eta urriko lanegunetan, jende gutxiago dago, eta soilik bisita gidatuek altxatzen dituzte kopuruak. Egun euritsuetan pertsona kopurua nabarmen murrizten da.


14. figura egon daitezkeen eragozpenen intentsitatea ikus daiteke, eta asteburuak eta lane-gunak desberdintzen dira.



14.Figura. Ahalezko arazoak lan egunetan (LE) eta asteburuetan (AE). Grafikaren baloreak ikerketa epean lortutako batzbestekoak dira.

Jarduera horien artean, benetako eragozpen sortzen dira padura inbaditzen dutenak, hala nola, itsaski harraparitza eta itsasontziak. Itsaski arrantzaletzat hartu dira, txirlak, datilak edo ornogabeak hartzen dituztenak (esaterako, amuzkirako “arrak”), nahiz eta profesionalak ez izan. Zenbait jarduerak eremua hartzen dute itsasadarrean, mugikortasun handia dutelako, esaterako: itsasontziak edo piraguak, uretako eskia, abiadura handitan doazen uretako motorrak edo kite surf.


Hurrengo argazkietan, errolda garaian hegaztiei izandako eragozpenetako batzuk ikus daitezke:




Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena



Mape ibaian zehar abiadura handitan nabigatzea. Heldu berri ziren mokozabal talde bat marea ertainean atsedean hartzen zegoela, atzetik ontzia igaro eta hegaztiak uxatu zituen.



Itsasadarreko gune isolatuak esploratzen dituzten piraguak, eta hegaztiei atsedenerako erabiltzen dituzte itsasgoretan.




Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena




Uretako eskia abiadura handitan, itsasadarraren ibilgu nagusian marea behean dagoenean. Nabigazio mota horrek ibarretan atseden hartzen edo elikatzen dabiltzan hegazti guztiak uxatzen dituzte.



Mape ibaian uretako motorrak dabiltza abiadura handitan, itsasadarraren erdian.





Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena



Itsasontziz Kanal Nagusira iritsi diren arrantzaleak (mokozabalek gehien erabiltzen dituzten gunetako bat), eta, bertan egon ohi dira arrantzan denbora luzez.




Axpe gunean, itsaski arrantzaleak ibili ohi dira, eta mokozabalek aurten gehien erabili duten eremuetako bat da.




Kite surf gero eta ohikoa da itsasadarrean. Aurten lehenengo aldiz, paduran bertan ikusi izan da, eta itsasgoran San Kristobal eta Axpe irlaren artean dauden uhartetxoetan atsedenean zeuden hegazti guztiak uxatu zituen.




Helikoptero txiki bat hegan ibili zen San Kristobaleko eremuaren gainetik, eta bidean aurkitzen zituen hegazti guztiak uxatzen zituen.




Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena



Axpe inguruko hareatzetan asko ibiltzen dira paseoa itsasbeheretan. Bisitari horietako asko itsaskiak harrapatzen aritzen dira.



Pertsonak paduretan ibiltzean, mokozabal ugarik eta beste hegazti askok alde egiten dute, edota ez dute itsasadarrean lur hartzen.



Itsaski arrantzaleak eta bertan nabigatzen duten ontziak itsasadarrean zehar sakabanatzen dira, eta, hortaz, mokozabalentzako eta orokorrean hegaztientzako benetako eragozpen izan daitezke.


Azken urteotan, nabigazio mota oso agresiboak eman dira, itsasadarrean debekatuta egon arren. Horrela, maiz uretako eskia egin izan da eta uretako motorrak sartu dira paduretara, itsasbeheran nahiz marea ertaina eta itsasgora zegoela. 242/1993 Dekretuak abiadura handiak debekatzen ditu, eta lege horren arabera, onartu egiten dira Urdaibaiko Biosferaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea. Gainera, Kostaldean gaineko 22/1988 Legea Garatu eta Betearazteko Araudi Orokorrak itsasadarrean nabigatzeko abiadura murrizten du.

Abiadura murriztapen hori ondo adierazita dago itsasadarrerako sargunetan dauden karteletan, baina urtez urte hausten da, eta ez da ekiditen, ez baitago hori betearazteko zaingorik.

Uretako motorrak eta uretako eskia fenomeno nahiko berriak dira, eta ekidin beharko litza-teke, gehiago hedatu baino lehen. Zabalduz doan beste praktika bat kite surf da, eta aurtan, lehenengo aldiz ibaiadarreko eremu garrantzitsuetan ikusi izan da. Jarduera horrek hegaztientzako atse-den lekuei eragiten die marea goian dagoenean, hala nola, Axpe irla eta San Kristobal eta Axpe artean sortzen diren uhartetxo eta munak.



Aurtan, Axpeko irla eta inguruak, munak eta San Kristobal eta Axpe arteko uhartetxoak erabili dituzte hegazti askok itsasgoretan atsedean hartzeko, eta baita mokozabalek ere. Horregatik, garrantzitsua lasai-tasuna bermatzea.




Gero eta pertsona gehiago iristen dira San Antonioko hondartzatik, itsasadarrean barrena ibiltzera. Axpeko hareatzetatik ibili ohi dira eta Kanal Nagusiraino iritsi, eta horrek bertan atsedean hartu eta elikatzen diren hegaztiei eragozpenak sor liezazkieke. Beste turista batzuek San Kristobaleko hareatzetan paseatzen dute eta baita ibarretan eguzkia hartu ere, bertako hegazti behatokiaren ondoan. Turistekin batera, txakurrak egon ohi dira.


Bisita gidatuak eta ornitologoen mugimenduak murriztuagoak dira, eta San Kristobaleko ibarrean bildu ohi dira. Hortaz, eragozpen txikiagoak sortzen dituzte.

Nahiz eta itsaski arrantzaren gaineko araudiak eguneko harrapakin kopurua murrizten duen, ez da aldi berean itsasadarrean joan daitezkeen pertsonen kopuru murrizten, eta ez dago sarrera murriztu edo debekatuko eremurik. Horregatik, paduran jende gehiegi dago sarritan, eta, ondorioz, estuarioa ez da horren erakargarria mokozabalak bezain hegazti sentikorrentzat. Aurten, eguraldi ona nagusitu da, eta horrek itsaski arrantzan ibili diren ume eta familien eta eremuan paseatzera joan direnen kopurua handitu du, bereziki Errekaetxe errekaetara. Azken urteotan, gero eta jende gehiago egon da eremu horretan, eta aisialdirako eremu gisa erabili izan da. Gero eta jende gehiago San Antonioko hondartzatik datoz marea behean dagoenean, eta datilak eta arrak harrapatzen dituzte, gatza erabiliz.


15. figura, 2010. urtean ikusi diren eragozpenak adierazten dira. Grafikoan ikus daiteke horietako asko ontzi eta piraguen (% 33,3), itsaski arrantzaleen (% 27,2) eta turistak (% 21,1) ondorio direla. Grafikoan, “beste batzuk” kontzeptuak hainbat kausak sortutako aldizkako eragozpenak biltzen ditu (koheteak, helikopteroak...), eta horiek ere urtez urte errepikatzen dira.



15.Figura. Ahalezko arazo desberdinen banaketa paduran.



16. figura, 2010. urtean erregistratu diren eragozpenak adierazten dira, azken urtekoekin alderatuz.



16.Figura. Azkeneko urteetan ahalezko arazoaren eboluzioa.

3.5 MOKOZABALEN BENETAKO ARAZOAK


Mokozabalak zuzenean eragozten dituzten arazoak zenbatu dira, eta landa fitxan datu hauek erregistratu dira:

- izututako mokozabalek jasandako eragozpen kopurua.
- eragozpenaren arrazoa eta ordua.
- eragozpenaren aurreko erantzuna, eta 5 kategoriatan sailkatu da: A $\Rightarrow$ izututa hegan alde egiten dute, B $\Rightarrow$ hegaldi luzea paduran zehar beste atsedean leku baten bila, C $\Rightarrow$ beste leku baterako hegaldi laburra, D $\Rightarrow$ beste leku batera oinez doaz, E $\Rightarrow$ erne jartzen dira.


51 errolda egunetatik, 27 egunetan mokozabalak egon ziren paduran. 14 egunetan (% 52) mokozabalek zuzeneko eragozpenak jasan zituzten, eta 13 egunetan (% 48) ez zen eragozpenik gertatu.

Ikerketa epean erroldatutako 735 mokozabaletatik 253 alek (% 34,4) paduratik alde egin zuten eragozpena gertatu ostean. Gainerako bi herenek, aldiz, estuarioa utzi zuten, migrazio senarengatik edo itsasadarraren gainetik gelditu gabe hegan igaro ziren taldeekin bat egiteagatik.

Epe horretan zehar, 26 eragozpen gertatu ziren, eta, horietako 9ren ondorioz, hegaztiekin ihes egin zuten. Mokozabaletako askok eragozpen bat baino gehiago izan zuten egonaldian zehar, eragozpen kopurua 393ra iritsi zen.



17. figura, mokozabalek eragozpenen aurrean izandako erantzunak nola banatu diren adierazten da. Grafikoan, ikus daiteke erantzunen % 64,7 A motakoak izan direla eta 253 hegaztik paturatik alde egin du.




17.Figura Ikerketan dauden erantzun mota desberdinen arabera dauden hegazti kopurua.

2. taulan, hegaztiek izandako eragozpenak biltzen dira. Alde batetik, izandako eragozpenak osotara eta eragozpenak jasan dituzten hegazti kopurua ikus daitezke, eta, bestetik, alde egitea eragin duten eragozpen kopurua (A motako erantzuna) eta Urdaibai erabat utzi zuten mokozabalak.

2.Taula. Eragozpen kopurua eta arrazoi desberdinengatik ihes egiten duten mokozabal kopurua.

Causa	Eragozpen kopurua (A, B, C, D eta E)	Arazoa jasan duten hegazti kopurua	A erantzuna duten arazo kopurua.	A erantzuna duen hegazti kopurua
Itsasontziak	6	31	3	23
Piraguak	1	5	0	0
Arrantzaleak	0	0	0	0
Itsaskilariak	12	268	4	199
Ornitologoak	1	13	0	0
Turistak	0	0	0	0
Bisita gidatuak	0	0	0	0
Suziriak	0	0	0	0
Harrapariak	2	32	2	31
Ezezaguna	4	44	0	0
	26	393	9	253



Itsaski arrantzaleak izan dira eragozpen gehien sortu dituztenak. Taulan ikus daitezke 12 alditan itsaski arrantzaleek mokozabalei traba egin zietela, 268 hegazti guztira. Hala ere, soilik lau alditan ihes egin zuten hegaztiak, 199 alek zehazki. Jarduera oso erasokorra da, pertsonak itsasadarrean zehar ibili behar dutelako harrapakin bila, gehienak Errekaetxe errekaaren ahoan biltzen diren arren.

Itsaski arrantzaleek sortutako eragozpen gehienak paduran sartzerakoan gertatzen dira edo harrapakin bila mugitzen direnean, bidetik aurkitzen dituzten hegaztiak izutzen dituztelako. Itsasbeheran edo marea ertainean ibiltzen diren motordun ontzietako asko itsaski arrantzaleenak dira, eta leku batetik bestera joateko erabiltzen dituzte. Joan-etorri horietan, bidetik aurkitzen dituzten hegaztiei oztopo egiten diete, hala nola, kurlintak, ubarroi handiak,...

Itsasbeheran eta marea ertainetan, mokozabalak eta beste hegazti batzuek itsasadarreko ibarretan atsedean hartzen eta elikatzen dabilta, eta, beraz, piraguek eta itsasontziek edo itsaski arrantzaleek hegaztiak uxatzen dituzte. Zenbaitetan, hegaztiak eragozpenak jasatean, eremuz aldatu dira (B eta C erantzunak) edo erne jarri dira (E erantzuna), baina eragozpen gehiago gertatzean paduratik ihes egiten zuten (A erantzuna). Halaber, hegazti bereziki sentikorrak ere egon ziren, eta zuzenean A erantzuna eman zuten eragozpenak jasan ostean.


Ez dituzte hegazti gehiagok eragopenak jasan sarritan gizaki gutxi dagoen egunetan iristen direlako (lanegunak edo egun euritsuak), eta, beraz, aukera gutxiago dago izutuak izan daitezkeen.

Ikusi da pertsonak egoteak hegaztiei paduran sartu edo gelditzeko asmoak kendu diezazkiekeela, leku estrategikoetan badaude, nahiz eta pertsona gutxi egon. Horrela, esaterako, aurtu hiru talde sartu dira jarraian (guztira 50 hegazti), eta paduran gelditzeari amore eman zioten hiru saiakera egin ostean. Izan ere, horietako bakoitzean itsaski arrantzale bat aurkitu baitzuten, eta une horretan itsasadarrean zeuden pertsona bakarrak ziren (**18. figura**).

Urtez urte, mokozabalek San Kristobaleko ibarrak aukeratzen dituzte atsedean hartzeko, behatokitik gertu, batez ere marea altua denean. Ibarretan pertsonak badaude, mokozabalek ez dituzte eremu horiek erabiltzen. Egun eguzkitsuetan ibar horiek eguzkia hartzeko erabiltzen dira, eta, hortaz, ez daude mokozabalentzako eskuragarri.



18. figura. 3 itsaski arrantzale ikusi ziren, eta, ondorioz, mokozabal talde batek ez zuen lur hartu.



Jada hegazti behatokia badagoenez, landare pantaila bat jar liteke edota hesi trinko bat, zirkuitu ornitologikoetan erabiltzen denaren modukoa (Salburuako, Txingudiko edo Santoñako hezeguneak, besteak beste), ibarren barnealdea isolatzeko. Horrela, helburu bikoitza lor liteke: lehenbizi, ibarretako hegaztientzat gutxieneko lasaitasuna bermatzea, eta, bigarrenez, pertsonak bertatik pasatu ahal izatea, ornitologoak edo bisitariak izan.

Harrapariak sortutako eragozpenak kenduta (arrano arrantzalea eta belatz handia), eragozpen guztiak gizakiek sortzen dituzte. Batzuetan, paduretako hegazti guztiei eragiten zieten eragozpenak gertatu dira, eta ezin izan dira identifikatu. Eragozpen horiek ziurrenik harrapariren batek sortzen ditu, hala nola, arrano arrantzalea eta belatz handia, itsasadarra zeharkatu ohi dutelako harrapakin bila.


3.6. PADURETAKO PUNTU BELTZAK

Axpe inguruan, Errekaetxe erreka paduran sartzen da, eta hortik hurbil, gun e istildu bat dago, hainbat zuhaitzekin. Trenak bi eremu horiek zeharkatzen ditu.


Kanalako behaketa puntua distantzia batera badago ere (1.800 m gutxi gorabehera), padura-
ren eta eremu horien artean hegaztiak ibili ohi direla ikusi da, eta horien artean nabarmentzekoak
dira, besteak beste: ubarroi handiak, lertxun hauskarak, lertxuntxo txikiak, lertxuntxo itzainak, an-
txeta mokogorriak, basahateak, eta 2009tik mokozabalak baita ere.

Duela zenbait urtetik, eremu horretako zuhaitzak gero eta lehorrago daude, eta 2008tik ar-
deidoek atsedenerako erabiltzen dituzte itsasgoretan. 2009an, mokozabalek ere atsedenerako erabili
dituzte. 2010ean, 2-3 ale izan dira eremu horretan, eta paduran hainbat egun igaro dituzte, baina ez
dituzte atsedenerako erabiltzen, elikatzeko baizik.

Padura eta eremu istildu horren artean dabilzan mokozabalek trenbideak saihestu behar di-
tuzte, eta horrek istripu arriskuak dakartza. Martin arrantzale bat hil da jada (Luis Silvak pertso-
nalki jakinarazita), eta ziurrenik badira ezagutzen ez diren hegazti istripuak eta baliteke nahiko iza-
tea. Zoritzarrez, urriaren 17an mokozabal gazte batek istripua izan zuen trenarekin, eta hilda aur-
kitu zen trenbideetan, Axpeko tren geltokitik metro gutxira.



Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena




Ezkerretan, mokozabalak istripua izan duen gunea adierazten da. Eskuinean, gunea hori handituta ikus daiteke. Gezi horiek hegaztiak paduren eta istildutako gunearen artean egondako fluxua adierazten dute, eta ikus daiteke trenbideak igaro behar dituzte.

Eremua puntu beltza izan liteke hegaztientzat, bi eremuen artean espezie ezberdinak joan-etorrian ibiltzen baitira, eta hegaztien hilkortasuna ez da oraindik ebaluatu. Horregatik, prebentzio neurriak jarri beharko litzateke, arriskuak murrizteko. Eremua altuera handiko zuhaitz eta/edo egiturekin inguratu liteke, hegaztiak hegaldi garaia egin ditzaten eremu batetik bestera joatean; baina tartean utzi beharko litzateke, hegazti txikiak irten eta trenbideen gainetik hegan egin ahal izateko, hala nola, martin arrantzalea edo paseriforme txikiak.



Lehen planoan, mokozabal hila ikus daiteke trenbideetan. Trenbideen eskuinetara paduren ur lamina ikus daiteke, eta, ezkerrean, Errekaetxe errearen ibilguaren amaiera. Hainbat espeziek eremu batetik bestera mugitzen dira, eta, hortaz, istripua izateko arriskua dute.



3.7. ERAZTUNDUN HEGAZTIEN JARRAIPENA

Eraztun zientifikoek mokozabalen biologiaren alderdi asko ezagutzeko aukera ematen dute, esaterako: bizitzaren iraupena; hilkortasuna; migrazio bideak; migrazio bideetan habia egiteko, atsedean hartzeko eta/edo elikatzeko guneen garrantzia; edo negualdietarako guneak...

Aurten, 9 hegaztiren eraztunak irakurri dira. Irakurketak Working Group Spoonbill International taldera (Holandan, Alemanian, Danimarkan, Kroazian, Grezian, Txekiar Errepublikan, Serbian, Hungarian, Errumanian, Turkian, Ukrainian eta Mauritania eraztunak koordinatzen dituen taldea) eta Rennes I Unibertsitateko Sistema Naturalen Eboluziorako Laborategira (Frantzia) bidali ziren.

Taula hauetan, identifikatutako 9 aleen historia zehatza ikus daiteke, eta, bertan, informazio interesgarria dator, adibidez: eraztuna jarri zioteneko lekua eta data, eraztuna jarri zioteneko adina, zein lekutan gelditu den eta zein lekutan eraztuna irakurri den, eraztuna jarri ziotenetik igarotako egunak...

Printdate: 18-10-10

Working Group Spoonbills International

SPECIES: Eurasian Spoonbill (*Platalea leucorodia leucorodia*)

Ref: 2460/115413

COLOURRINGS: O[TV]/aO[TV]

RINGINGPLACE: NL Schiermonnikoog, Oosterkwelder 5329N-0609E

METALRINGNR: NLA 8042737


RINGING AGE: nestling

RINGING DATE: 14/05/1999

SEXE: certainly male

RINGER: Otto Overdijk

Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
22/05/1999	NL	Schiermonnikoog	Oosterkwelder	Otto Overdijk	8	0 km.	
26/05/1999	NL	Schiermonnikoog	Oosterkwelder	Otto Overdijk	12	0 km.	
23/08/1999	NL	Kloosterburen	Westpolder	Hans Zwaagstra	101	10 km.	
03/09/1999	NL	Lauwersmeer	Achter de Zwarten	Otto Overdijk	112	12 km.	
23/09/1999	F	Gironde	Le Teich	Alain Fleury	132	1104 km.	
24/04/2000	S	Sevilla	Brazo del Este	Luis Garcia & F.I.	346	2036 km	f
04/04/2001	S	Huelva	Mar del Rocio	Hakon Persson	691	2019 km.	
05/04/2001	S	Huelva	Mar del Rocio	Hakon Persson	692	2019 km.	
08/04/2001	S	Huelva	Mar del Rocio	Ulrich Eidam	695	2019 km.	
16/04/2001	F	Seine Maritime	Marais du Hode	Laurent Philippe	703	614 km.	
21/04/2001	F	Seine Maritime	Marais du Hode	Laurent Philippe	708	614 km.	
24/04/2001	F	Seine Maritime	Marais du Hode	Laurent Philippe	711	614 km.	
26/04/2001	F	Seine Maritime	Marais du Hode	Laurent Philippe	713	614 km.	
08/05/2001	F	Somme	Marquenterre	Philippe Carruette	725	471 km.	
11/05/2001	F	Somme	Marquenterre	Philippe Carruette	728	471 km.	
16/05/2001	F	Somme	Marquenterre	Lucas Christelle	733	471 km.	



Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien
2010 Txostena

23/05/2001	NL	Schiermonnikoog	Oosterkwelder	Brenda	740	0 km.	
31/05/2001	NL	Schiermonnikoog	Oosterkwelder	Brenda	748	0 km.	
25/07/2001	NL	Lauwersmeer	Jaap Deensgat	Jeroen Nienhuis	803	14 km.	
19/03/2003	F	Seine Maritime	Marais du Hode	David Hemery	1405	614 km.	
14/09/2003	NL	Wissenkerke	Gravenhoekse Inlaag	Peter Matthijssen	1584	269 km.	
21/09/2003	S	Zamora	Villafafila	Marcos Zarraga	1591	1561 km.	
08/03/2004	F	Vendee	Bouin	Frederic Fonteneau	1760	921 km.	
27/05/2005	D	Ostfriesland	Norderney	Manfred Temme	2205	93 km.	
08/09/2005	S	Guipuzcoa	Irun	Miguel Angel Lopez	2309	1272 km.	
27/03/2006	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	2509	602 km.	
29/03/2006	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	2511	602 km.	
15/05/2006	D	Ostfriesland	Norderney	Manfred Temme	2558	93 km.	
17/09/2006	F	Gironde	Le Teich	DL	2683	1104 km.	
27/02/2007	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	2846	602 km.	
28/02/2007	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	2847	602 km.	
28/02/2007	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	2847	602 km.	
01/03/2007	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	2848	602 km.	
02/03/2007	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	2849	602 km.	
25/02/2009	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	3575	602 km.	
26/02/2009	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	3576	602 km.	
07/04/2009	D	Niedersachsen	Hilgenriedersiel	Frank Sudendey	3616	72 km.	
22/08/2009	D	Ostfriesland	Norderney	Hetsch & Wenning	3753	93 km.	
02/09/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaita	4129	1297 km.	

Printdate: 18-10-10

Working Group Spoonbills International

SPECIES: Eurasian Spoonbill (*Platalea leucorodia leucorodia*)

Ref: 4492/115414

COLOURRINGS: L[L6]a/B[L6]

RINGINGPLACE: NL Schiermonnikoog, Oosterkwelder 5329N-0609E

METALRINGNR: NLA .8047036


RINGING AGE: nestling

RINGING DATE: 16/06/2005

SEX: unknown

RINGER: Otto Overdijk

Date	Country and site or reserve		Observer	Days	Dist.	Sexe
01/08/2009	NL	Terschelling	Waterplak Midsland	Harrie Horn	1507	66 km.
14/08/2010	NL	Lauwersmeer	Jaap Deensgat	Otto Overdijk	1885	14 km.
02/09/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaita	1904	1297 km.



Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien
2010 Txostena

Printdate: 18-10-10							
Working Group Spoonbills International							
SPECIES: Eurasian Spoonbill (<i>Platalea leucorodia leucorodia</i>)					Ref: 7763/115415		
COLOURRINGS: BYB/YfYa			RINGINGPLACE: NL Schiermonnikoog, Oosterkwelder 5329N-0609E				
METALRINGNR: NLA .8052477			RINGING AGE: nestling				
RINGING DATE: 13/06/2010			SEXE: unknown			RINGER: Otto Overdijk	
Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
27/07/2010	NL	Schiermonnikoog	Westerplas	Catherine	44	7 km.	
19/09/2010	NL	Veerse Meer	Grote Middelplaat	Mark Hoekstein	98	274 km.	
19/09/2010	S	Vizcaya	Ria Gernika	Rafael Garaita	98	1297 km.	
24/09/2010	S	Guipuzcoa	Irun	J.L.Gomez & X.Garate	103	1272 km.	

Printdate: 18-10-10

Working Group Spoonbills International

SPECIES: Eurasian Spoonbill (*Platalea leucorodia leucorodia*)

Ref: 2754/115417

COLOURRINGS: G[L0]/aG[L0]

RINGINGPLACE: NL Texel, de Schorren 5308N-0454E

METALRINGNR: NLA 8042674

RINGING AGE: nestling


RINGING DATE: 29/07/1999

SEXE: certainly male

RINGER: Otto Overdijk

Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
08/07/2000	S	Sevilla	Cangrejo Grande	EBD F.I.	345	1978 km.	
06/07/2002	GB	Suffolk	NT Orford Ness	Mick Marsh	1073	242 km.	
13/09/2002	S	Badajoz	Embalse Canchales	Emilio Costillo	1142	1746 km.	
09/02/2003	S	Pontevedra	Umia, El Grove	Marcos Zarraga	1291	1497 km.	
30/07/2007	NL	Texel	wad bij Cocksdorp	Laurens v.Kooten	2923	20 km.	
08/05/2008	NL	Texel	de Schorren	Eckard Boot	3206	8 km.	
24/03/2009	F	Seine Maritime	Baie de la Seine	David Hemery	3526	0 km.	
24/09/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaita	4075	0 km.	

Printdate: 18-10-10							
Working Group Spoonbills International							
SPECIES: Eurasian Spoonbill (<i>Platalea leucorodia leucorodia</i>)					Ref: 5750/115418		
COLOURRINGS: YfLB/BaY			RINGINGPLACE: NL Vlieland, Bomenland 5317N-0459E				
METALRINGNR: NLA .8049201			RINGING AGE: nestling				
RINGING DATE: 16/06/2007			SEXE: unknown		RINGER: Overdijk/Kelder		
Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
08/10/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaita	1210	1234 km.	
12/10/2010	S	Cantabria	Bay of Santander	Antonio Sanz	1214	1268 km.	



Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien
2010 Txostena

Printdate: 18-10-10

Working Group Spoonbills International

SPECIES: Eurasian Spoonbill (*Platalea leucorodia leucorodia*)

Ref: 5785/115419

COLOURRINGS: RYfR/aLG

RINGINGPLACE: NL Vlieland, Bomenland 5317N-0459E

METALRINGNR: NLA .8049236

RINGING AGE: nestling

RINGING DATE: 16/06/2007

SEXE: unknown

RINGER: Overdijk/Kelder

Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
15/09/2007	NL	Ameland	Vogelpolle	Jeffrey Huizenga	91	49 km.	
13/07/2010	NL	Vlieland	Posthuiswad	Harrie Horn	1123	1 km.	
14/07/2010	NL	Vlieland	Lange Paal	Harrie Horn	1124	5 km.	
09/10/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaito	1211	1234 km.	

Printdate: 18-10-10

Working Group Spoonbills International

SPECIES: Eurasian Spoonbill (*Platalea leucorodia leucorodia*)

Ref: 7366/115416

COLOURRINGS: GLfY/YBa

RINGINGPLACE: D Schleswig-Holstein, Oland 5441N-0843E

METALRINGNR: DEW .268799

RINGING AGE: nestling

RINGING DATE: 29/05/2010

SEXE: unknown

RINGER: Klaus Gunther

Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
24/09/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaito	118	1500 km.	

Printdate: 21-10-10

Working Group Spoonbills International

SPECIES: Eurasian Spoonbill (*Platalea leucorodia leucorodia*)

Ref:

COLOURRINGS: Ra/RPY

RINGINGPLACE: Lac de Grand-Lieu (Loire Atlantique, F)

METALRINGNR: CA 71105

RINGING AGE:

RINGING DATE: 17/06/2010

SEXE:

RINGER:

Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
02/09/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaito			

Printdate: 21-10-10

Working Group Spoonbills International

SPECIES: Eurasian Spoonbill (*Platalea leucorodia leucorodia*)

Ref:

COLOURRINGS: Ga/WPY

RINGINGPLACE: Lac de Grand-Lieu (Loire Atlantique, F)

METALRINGNR: CA 45166


RINGING AGE:

RINGING DATE: 16/05/2010

SEXE:

RINGER:

Date	Country and site or reserve			Observer	Days	Dist.	Sexe
02/09/2010	S	Vizcaya	Ría Gernika	Rafael Garaito			



Mokozabalen eztei osteko migrazioa Urdaibaien 2010 Txostena

3. taulan, 9 mokozabalen jatorria labur azaltzen da. Hegazti horietatik, 6 aleri Holandan jarri zieten eraztuna, 2 aleri Frantzian eta bati Alemanian. Lau hegazti urte berean jaiotako txitak ziren eta bost helduak, horietako batek 11 urte baino gehiago zituen. Lau txitak jaiotza lekutik kanpo behatu dira lehenengo aldiz, eta gazteetako batek bidean atzera egin zuen eta egun batzuk geroago Irunen ikusi zuten.

3.Taula. Eraztundun mokozabalen jatorria


Herrialdea	Eraztunketa eremuak	Eraztundun hegaztien kopurua
Holanda	Texel, de Schorren	1
	Schiermonnikoog, Oosterkwelder	3
	Vlieland, Bomenland	2
Frantzia	Lac de Grand-Lieu (Loire Atlantique)	2
Alemania	Schleswig-Holstein, Oland	1

2000. urtean eraztunak irakurtzen hasi zenetik, 158 eraztun irakurri dira, 139 hegazti ezberdinetan. Izan ere, hegazti batzuen eraztunak behin baino gehiago irakurri dira, egun bat baino gehiagotan irakurri dira edo urte batez baino gehiagoz itzuli dira. Datu horiei guztiei, GPS bidez markatutako ale baten informazioa erantsi zaie. 2009an Urdaibain gelditu zen eta 140 hegazti identifikatu ziren. 4. taulan, 2000. urtetik identifikatu diren hegazti kopurua laburtzen da eta eraztun jarraipena egiten duten herrietan nola banatzen diren.

Zeharkatu dituzten guneen historiala ikusita, Holanda, Alemania, Britainia Handia, Frantzia eta Espainia ikus daitezke, eta baita ere Europa mendebaldeko mokozabalak nondik mugitzen diren.

4.Taula. Urdaibien identifikatutako mokozabalen laburpena 2000.urteetik aurrera

	GPS		Eraztunen irakurketa		Identifikatu- ta dauden hegazti ko- purua osoa	Herrialdeak			
	Irakurke- ta kopu- rua	Hegazti desberdi- nen kopu- rua	Irakurke- ta kopu- rua	Hegazti desberdi- nen kopu- rua		Eraztu- nak Holanda	Eraztu- nak Ale- mania	Eraztu- nak Frantzia	Eraztu- nak Es- painia
2000	-	-	4	4	4	4	0	0	0
2001	-	-	14	13	13	11	0	2	0
2002	-	-	4	4	4	4	0	0	0
2003	-	-	12	10	10	6	0	3	1
2004	-	-	33	33	33	30	0	3	0
2005	-	-	11	11	11	3	0	8	0
2006	-	-	14	12	12	12	0	0	0
2007	-	-	19	19	19	14	1	4	0
2008	-	-	11	8	8	8	0	0	0
2009	2	1	27	16	17	16	0	1	0
2010	-	-	9	9	9	6	1	2	0
Guztira	2	1	158	139	140	114	2	23	1




Working Group Spoonbill International taldeak 29 mokozabal markatu ditu GPSaren, eta horietatik bat 2009an Urdaibain egin zuen geldialdia eztei ondoko migrazioan. GPSarekin markatutako mokozabalen jarraipena eta hegazti bakoitzaren historiala hemen kontsulta daiteke:

<http://www.natuurmonumenten.nl/content/natuurgebied/nationaal-park-schiermonnikoog/volg-lepelaars-per-satelliet>


Identifikaturik dauden eraztun guztien laburpena *IV erazkinean* ikus daiteke.

3.8. MOKOZABALEN EZTEI OSTEKO MIGRAZIO PASEAREN EBOLUZIOA URDAIBAIEN. 1995-2010 URTEAK

19. figura, mokozabalek eztei ondoko migrazioan Urdaibain egindako geldiuneak 1995etik 2010era. 1998an ez zen jarraipenik egin, eta, horregatik, ez dago daturik grafikoan. Grafikoan ikusten den bezala, hegaztien jarraipena egiten denetik, hau da hegazti kopururik handiena izan duen bigarren urtea.



19.Figura. Mokozabal kopurua eztei osteko migrazioan Urdaibaien urteetan zehar.



3.9. SANTOÑAKO ETA PLAIAUNDIKO ESTUARIOEKIN ETA SALBURUAKO HEZEGU- NEA ANALISI KONPARATIBOA

Aurten, espezie honetan hainbat lekutan lortu diren eztei ondoko migrazio erroldetako datuak bildu dira: Kantabriako Santoñako padurak (Ludovico de Vegak pertsonalki jakinarazita), Plaiaundi Parke Ekologikoa Gipuzkoako Txingudi badian (Alberto Luengok pertsonalki jakinarazita) eta Arabako Salburuako baltsak (Luis Lobok pertsonalki jakinarazita).

Erroldarako metodologia ez da berdina hezegune bakoitzean, eta, beraz, zaila da lortutako datuak alderatzea, baina hezegune bakoitzaren garrantzia antzeman daiteke.

Txingudin, bertatik pasatzen diren mokozabal guztiak erregistratzen dira, eta ez da ezberdintzen gelditzen diren ala ez. Hala ere, Txingudiko padurak espeziearentzako eremu estrategikotzat har daitezke, atsedean gunea eskuragarri baitute behar dutenerako. Urtero, hegazti ugari igarotzen da bertatik, eta 2010ean 2.025 mokozabal igaro eta/edo gelditu dira Txingudiko paduretan.

EAEren barruan, mokozabalak Salburuako hezeguneetan ere gelditu ohi dira migrazioetan zehar. Hezegune horretan, abuztu osoan zehar mokozabalen bat ikusi da (1 eta 5 hegazti artean). Badirudi mokozabaletako batzuk zenbait egunez atsedean hartu dutela hezegunean, eta 64 eta 130 hegazti artean gelditu dira, abuztu hasieratik iraila amaierara arte.



Santoñan erregistratutako migrazioari buruzko informazio zehatzagoa izanez, Urdaibaiko migrazio fenologiarekin alderatu daiteke, eta ezin izan da hori beste hezegune batzuekin egin.

Errola bakoitzak iraupen ezberdina izan duenez, migrazio balioak alderatzeko, errolda biek dituzten egun komunak hartu dira, hau da, abuztuaren 31tik urriaren 10era. Epe horretan, Santoñan 29 egunetan sartu dira mokozabalak, eta, Urdaibain, aldiz, 18 egunetan. Epe horretan, 1865 ale izan dira Santoñan, eta Urdaibain, 735.

Aurten, Urdaibaiko errolda bi egun estrarekin osatu da (urriaren 11 eta 12), eta egun horietan baldintza meteorologikoak okertu zirenez, atzeratutako hegaztiak sartu dira aterpe bila. Horrela, Urdaibain 975 hegazti erregistratu dira guztira. Baliteke egun horietan ere Santoñara hegaztiak iritsi izana, baina erregistratu gabe egotea. Hortaz, Santoñan erroldatutako hegaztiak benetako kopurua baino gutxiago dira.

Bi estuarioen migrazio fenologiaren konparazio kurbek erakusten dute aurten iraileko lehen hamabostaldian Santoñan hegazti ugari sartu direla (397 mokozabal), eta Urdaibain, ordea, oso gutxi izan dira (37 mokozabal). Iraileko bigarren hamabostaldian, migrazioa handiagoa izan da Urdaibain eta Santoñan, eta unerik garaienak orduan izan dira bi paduretan (**20. figura**). Grafikoan, errolda biek komunean duten epea puntuzko bi lerro bertikalekin adierazten da.

Abuztuko azken 10 egunetan, ez da Urdaibaira mokozabalik iritsi, eta grafiko hasieran Santoñan daturik ez egoteak ez du esan nahi ez zenik hegaztirik sartu, baizik eta ez zirela datuak bildu.





20. figura. Urdabaiko eta Santoñako mokozabalen eztei ondoko migrazioaren fenologia. Urdabaiko errolda epea zabalagoa da, eta puntuzko lerro bertikalek bi errolden denbora komuna zehazten dute.

3.10. BESTE INTERESEKO ESPEZIE MIGRATZAILE BATZUEN PRESENTZIA

Aurten ere, mokozabalekin batera, interesezko beste migrazio hegazti batzuk erabili dute mokozabalen eremu berbera.



Lertxun hauskarak (*Ardea cinerea*) kopuru aldakorak izan ditu ikerketa epean zehar, eta hegazti horiek hainbat geldialdi egin dituzte itsasadarrean. Aurten, irailaren 25ean talde handia iritsi zen, 132 hegaztiko multzoa, hain zuzen (**21. figura**). Normalean, hegazti horiek denborarik gehiena atsedenean egon ohi dira eta ez dute beste ezer egiten. Horrek erakusten du neka eginda iristen direla Urdabaira, atsedean leku bila. Egonaldiak laburrak izaten dira, eta ohikoena da hurrengo goizean aurreko eguneko hegaztietako bat ere ez gelditzea, normalean gauez bidaiatzen baitute.



21.Figura. Lertxun hauskararen presentzia ikerketa denbora tartean Urdaibaiko paduran.


Halaber, lertxuntxo txikiak (*Egretta garzetta*) itsasadarrean egonaldiak egin dituzte ikerketa epean zehar, mokozabalaren edo lertxun hauskaren antzera (**22. figura**). Migrazioan sartzen diren hegaztiak lertxun hauskararen joera bertsuak izan ohi dituzte: denbora gehienez atsedenean daude, eta orokorrean, hurrengo egunerako alde egiten dute.

Migrazio multzoez gainera, lertxuntxo txikiak populazio iraunkorra du Urdaibain, eta grafikoaren gutxieneko balioetan ikus daiteke hori. Goizaldean lertxuntxoan sartzen zirela ikus zitekeen, eta itsasadarrean zehar sakabanatuz zihoazela. Normalean, 8 eta 12 ale artean, mokozabalek erabilitako paduretan geratzen ziren. Ilunabarrean kontrakoa gertatzen zen. Aurten Urdaibaiko lertxuntxoan ez dira gaua pasatzera geratu Axpe eta San Antonioko hondartzaren arteko zuhaitzetan, azken urteotan gertatu bezala, eta estuariotik kanpo irtetea erabaki dute.




22.Figura. Lertxuntxo txikiaren presentzia ikerketa epean Urdaibaiko paduran.


Kurlintak (*Numenius arquata*) erroldaren hasieratik ikusi dira, eta itsasadarrean 40-60 ale egon dira ikerketa epe osoan zehar. Irailaren 11n eta 12an izandako beherakada, baliteke aleak gutxiestearen ondorio izatea, itsasadarretik alde egitearena baino. Epe horretan, ziurrenik hegazti talde txikiak sartu izan dira eta zeudenekin bat egin, edo baliteke aleetako batzuk irten izana, baina ez da talde handirik iritsi (23. figura).



23.Figura. Kurlinta handiaren presentzia ikerketan epean Urdaibaiko paduran.



24. figura, ubarroi handiaren (*Phalacrocorax carbo*) migrazio fenologia adierazten da, eta hegaztiak metatuz joan direla ikus daiteke. Grafikoaren gorabeherak luze gelditu ez diren hegaztien sartu eta irteerak islatzen dituzte.





24.Figura. Ubarroi handiaren presentzia ikerketa epean Urdaibaiko paduran.

Iaz bezala, abuztutik itsasadarrean geratu ohi dira hegazti gutxi batzuk, eta iraila amaieran eta urria hasieran talde gehiago heltzen dira. Ubarroi batzuk itsasadarra uzten dute, baina beste batzuk geratzen dira, eta eroldaren azken egunetan 20 ale zeuden, aurreko urtean bezala.

Iaz bezala, itsas mika (*Haematopus ostralegus*) taldeen presentzia egonkorra izan da, eta 5-6 ale egon dira padura nagusian errola osoan zehar. Hegazti horiek itsasbeheran edo marea ertainetan padura osotik sakabanatuta zebiltzan, eta itsasgoran atsedean lekuetan pilatzen ziren. Kanalako munak, Axpe irlako ibarrak edo inguruko munak erabili dituzte atsedenerako.

Zenbaitetan, ez ziren ale guztiak detektatu, baina hurrengo egunetan berriz ikusten ziren. Horrek pentsarazten du hegazti kopurua mantentzen zela, eta batzuetan talde bakarrean batzen zirela.

Urriaren 21etik aurrera, ale berriak iristen joan ziren eta 13 hegazti izan dira gehienez, nahiz eta badirudien zenbait hegaztik itsasadarra utzi zutela gero, eta 8 itsas mika geratu ziren (25. figura).




25.Figura. Itsas mikaren presentzia ikerketa epean Urdaibaiko paduran

Ikerketa epean zehar, hainbat arrano arrantzale (*Pandion haliaetus*) sartu dira itsasadarrean. Horrela, abuztutik irailaren 4ra 2 hegazti ezberdin ikusi ziren, irailaren 12tik 26ra 3 (edo agian 4) hegazti detektatu ziren, eta urrian arrano 1 ikusi zen. Behaketa horien artean, hainbat egun igaro dira hegaztirik ikusi gabe, eta, beraz, badirudi hegazti ezberdinak direla. Esan liteke 5 edo 6 hegazti ezberdin sartu direla. Ale batzuk pasekoak ziren eta egun bat edo ordu batzuk egon dira, baina beste batzuk hainbat egunez geratu dira (**26. figura**).

Zenbait egunetan ez zen hegaztirik detektatzen, eta, ondoren berriro ikusten ziren. Ezin daiteke jakin ale berdina zen edo beste bat, eta, hortaz, grafikoak hutsuneak daude. Maiz, arranoak goizetan eta arratsaldeko lehen orduetan antzematen ziren, eta gero behatokitik ikusi ezin zitezkeen atsedan lekuetara joaten ziren. Arranoetako batzuk Baraizko paduraren inguruko atsedan lekuetara joaten ziren, eta, hortaz, ezin ziren ikusi mokozabalak jarraitzeko behaketa puntutik.

Arranoek gizakiak nahiko ondo jasaten dituzte, eta eragozpenik izanez gero, beste leku batera doaz, baina ez dute horregatik padura uzten.



- 2010.ko irailak 26: 14 ale
- 2010.ko irailak 27: 3 ale
- 2010.ko irailak 28: 14 ale
- 2010.ko irailak 29: 16 ale
- 2010.ko irailak 30: 12 ale
- 2010.ko urriak 1: 12 ale
- 2010.ko urriak 2: 11 ale
- 2010.ko urriak 3: 9 ale
- 2010.ko urriak 4: 8 ale
- 2010.ko urriak 5: 7 ale
- 2010.ko urriak 6: 7 ale
- 2010.ko urriak 7: 7 ale
- 2010.ko urriak 8: 8 ale
- 2010.ko urriak 9: 8 ale
- 2010.ko urriak 10: 8 ale

Ipar-ahatea (*Anas strepera*)


- 2010.ko abuztuak 29: 13 ale

Basahatea (*Anas platyrhynchos*). Espezie hori Urdaibain aurki daiteke, eta hainbat eremutan zehar mugitzen da. Sarritan, ikerketa gunearen uretan gora egoten da. Hemen, mokozabalekin batera konpartitutako egunak adierazten dira soilik.

- 2010.ko abuztuak 24: 3 ale
- 2010.ko abuztuak 25: 18 ale
- 2010.ko abuztuak 26: 18 ale
- 2010.ko irailak 1: 29 ale
- 2010.ko irailak 2: 29 ale
- 2010.ko irailak 4: 11 ale
- 2010.ko irailak 5: 34 ale
- 2010.ko irailak 12: 26 ale
- 2010.ko irailak 14: 30 ale
- 2010.ko irailak 16: ale 1
- 2010.ko irailak 17: 11 ale
- 2010.ko irailak 18: 4 ale
- 2010.ko irailak 19: 31 ale
- 2010.ko irailak 24: 30 ale
- 2010.ko irailak 26: 7 ale
- 2010.ko urriak 1: 32 ale
- 2010.ko urriak 2: 32 ale
- 2010.ko urriak 3: 32 ale

Hegabera (*Vanellus vanellus*)

- 2010.ko irailak 26: 31 ale
- 2010.ko urriak 8: 78 ale
- 2010.ko urriak 9: 17 ale



Abozeta (*Recurvirostra avosetta*)

- 2010.ko abuztuak 23: 4 ale
- 2010.ko abuztuak 25: 21 ale
- 2010.ko abuztuak 31: 5 ale
- 2010.ko irailak 3: 5 ale
- 2010.ko irailak 4: 19 ale
- 2010.ko irailak 10: 7 ale
- 2010.ko irailak 25: 13 ale

Zertzeta arrunta (*Anas crecca*)

- 2010.ko abuztuak 29: 64 ale
- 2010.ko irailak 17: 4 ale
- 2010.ko irailak 23: 28 ale

Lertxun gorria (*Ardea purpurea*)

- 2010.ko urriak 9: ale 1

Beltxarga beltza (*Cygnus atratus*)

- 2010.ko abuztuaren 21etik 23ra arte: ale 1
- Irailen 29tik 2010.ko urriaren 10ra arte: ale 1

Beltxarga arrunta (*Cygnus olor*)

- 2010.ko urriak 9: 2 ale

Lertxuntxo handia (*Casmerodius albus*)


- 2010.ko irailak 18: 4 ale
- 2010.ko urriak 8: 4 ale
- 2010.ko urriak 9: ale 1

Lertxuntxo itzaina (*Bubulcus ibis*)

- 2010.ko irailak 14: 10 ale
- 2010.ko irailak 15: 4 ale
- 2010.ko irailak 17: 7 ale
- 2010.ko irailak 18: 7 ale
- 2010.ko irailak 23: 30 ale
- 2010.ko irailak 25: 13 ale
- 2010.ko irailak 26: 22 ale
- 2010.ko urriak 8: 15 ale
- 2010.ko urriak 9: 4 ale

Txenada mokogorri (*Sterna caspia*)

- 2010.ko irailak 12: 2 ale
- 2010.ko irailak 26: 2 ale




*Mokozabalaren eztei osteko migrazioa Urdaibaien
2010 Txostena*

Ahate txistularia (*Anas penelope*)

- 2010.ko irailak 23: 13 ale
- 2010.ko urriak 6: 2 ale


Paita gorrizta (*Tadorna ferruginea*)

- 2010.ko abuztuak 26: 3 ale




4. LABURPENA

- 2010. urtean, gutxienez 975 mokozabalek erabili zuten Urdaibaiko estuarioa eztei ondoko migrazioetan, eta itsasadarrean hegazti gehien gelditu diren bigarren urtea da. Hegazti horietatik, 735 ale erroldatu ziren ikerketa epean, eta 240 erroldaren ostean. Balio hori EAE iparraldean dauden mokozabalen % 8 da gutxi gorabehera, ugalketaren ostean.
- Erroldaren 51 egunetan, 43 talde iritsi dira 17 egun ezberdinetan. Mokozabal batzuek egun bat baino gehiagoz geratu direnez, 27 egunez egon dira mokozabalak paduran. Errollda amaitzean, gutxienez bi egunez mokozabal heldu dira.
- Aurten, migrazio ia osoa irailaren bigarren hamabostalditik aurrera gertatu da.
- Erroldatutako mokozabal gehienak, % 83ak (612 ale) itsasadarrean atsedean hartzeko eta/edo elikatzeke gelditu dira. Gainerakoak, % 17ak (123 mokozabal) paduraren gainetik hegan zuen, eta buelta emanez esploratu zuten, baina ez zuten lur hartu, ziurrenik itsasadarrean gizakiak zeudelako. Gauzez ere migrazioak egon ohi dira, eta mokozabalen % 48 (352 ale) gauzez sartu dira.
- Iraupen denboraren batz bestekoa 7 ordu eta 23 minutu izango dira. Aleen % 60 (441) 6 ordu baino gehiago geratu dira.
- Itsasadarrean bi irteera bide nagusi daude: iparraldera edo ipar-ekialdera (9 multzo 345 alerekin), eta hegoaldera edo hego-ekialdera (12 multzo 223 alerekin). Ezin izan da 10 multzoen norabidea zehaztu, guztira 160 hegazti.
- 2010. urtean, 152 hektareako azalera erabili da Urdaibaiko padura nagusian, eta aldizka 13,5 hektarea erabili izan dituzte Baraizko paduretan.
- Marea da hegazti horien jarduera erritmoa markatzen duena Urdaibain. Aurten, mokozabalek denboraren % 59 atsedean hartzen eman dute, batez ere egonean eta lo egiten. Denboraren % 20 elikatzen igaro dute eta % 21 hegan egiten. Aurten, mapetan ikus daiteke aurten mokozabalak eremu hauek erabili dituztela: San Kristobal eta Axpe irlaren arteko padura, Axpe irlaren inguruak eta Errekaetxe ibaixka, Kanal Nagusia eta itsasadarraren ibilgu nagusiaren bi ibarrak. Ez dira horrenbeste hegazti izan San Kristobal inguruan eta gainerako guzietan.
- Aurten ere, ikus daiteke eragozpen nagusiak (ontziak, piraguak, itsaski arrantzaleak, turistak eta arrantzaleak) handiagoak direla oporretan, asteburuetan eta egun eguzkitsuetan, eta lanegunetan (batik bat oporrak igaro ostean) edo egun euritsuetan gizaki gutxiago daude. Horrek padura aisialdirako erabiltzen dela agerian uzten du. Ez da benetan murrizten aldi berean paduretan sartzen ziren pertsona kopurua eta ez dago sarrera murrizturik edo debekatutako gunerik, eta horrek ziurrenik paduraren erakargarritasuna gutxitzen du mokozabalak bezain espezie sentikorrentzat.




- Mokozabalak 27 egunez paduran egon dira, eta 14 egunetan (% 52) eragozpen zuzenak jaso dituzte eta 13 egun (% 48) eragozpenik gabe. Hegaztien % 34,4k (253 ale) padura utzi zuten eragozpenak jasan ostean.
- Paduraren eta Axpe inguruko eremu istildu horren artean dabiltzan mokozabalek trenbideak saihestu behar dituzte, eta horrek istripu arriskuak dakartza. Hau da bigarren urtea mokoza-balak gun e horietan geldiuneak egin dituztela, eta zoritxarrez, mokozabal gazte bat hil zen, trenarekin istripua izan ostean.
- Harrapariekin sortutako eragozpenak kenduta (arrano arrantzalea eta belatz handia), eragozpen guztiak gizakiek sortzen dituzte. Hegaztien % 68ak eragozpenak jasan dituzte itsas-ki arrantzaleen aldetik. Urdaibai utzi zuten 253 hegaztitik 199 alek (% 79) horien erruz ihes egin zuten.
- Lertxun hauskararen eta lertxuntxo txikiaren migrazio fenologiak kopuru aldaketa handiak erakusten ditu, mokozabalaren antzera, eta geldiune laburrak egin dituzte. Kurlinta eta itsas mika erroldan zehar era iraunkorrean egon dira. Ubarroi handiak itsasadarrean metatuz joan dira, hegaztiekin bertan negua igarotzen baitute. 5-6 arrano arrantzale detektatu dira.
- Behatutako beste hegazti batzuk hauexek izan dira: zingira-mirotza, zapelaitz liztorjalea kuliska gorria, ipar-ahatea, basahatea, hegabera, abozeta, zertzeta arrunta, lertxun gorria, lertxuntxo handia, lertxutxo itzaina, txenada mokogorri, ahate txistularia, paita gorritzat, beltzarga arrunta eta beltzarga beltza.




5. BIBLIOGRAFIA


- BirdLife International (2004) Birds in Europe: population estimates, trends and conservation status. Cambridge, UK: BirdLife International. (BirdLife Conservation Series N° 12).
- BirdLife International 2009. *Platalea leucorodia*. In: IUCN 2010. IUCN Red List of Threatened Species. Version 2010.3. www.iucnredlist.org.
- De le Court, C., Máñez, M., García, L., Garrido, H. e Ibáñez, F. 2003. Espátula Común *Platalea leucorodia*. En, Martí, R & Del Moral, J.C. (Eds.): Atlas de las Aves Reproductoras de España, pp 126-127. Dirección General de Conservación de la Naturaleza-Sociedad Española de Ornitología. Madrid.
- De le Court, C., Mañez, M., García, L., Garrido, H. e Ibáñez, F. 2004. Espátula común, *Platalea leucorodia*. En, A. Madroño, C. González y J. C. Atienza (Eds). Libro Rojo de las Aves de España, pp. 76-79. Dirección General para la Biodiversidad-SEO/BirdLife. Madrid.
- De le Court, C. y Fera, E. 2009. La espátula en Andalucía. Bases para su conservación. Manuales de Conservación de la Naturaleza N° 5. Consejería de Medio Ambiente. Junta de Andalucía. Sevilla.
- Del Hoyo, J., Elliott, A. y Sargatal, J. (eds) (1992) *Handbook of the Birds of the World*. Vol 1. pp. 525-526. Lynx Edicions, Barcelona.
- Del Villar, J., Garaita, R., Prieto, A., Galarza, A. y Garaita, M. 2003. Migración postnupcial de la espátula en Urdaibai. Informe 2003. Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Gobierno Vasco. Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. Informe inédito.
- Del Villar, J. y Garaita, R. 2005. Migración postnupcial de la espátula en Urdaibai. Informe 2005. Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Gobierno Vasco. Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. Informe inédito.
- Franco, J. 1995. Estudio de la fauna silvestre asociada a los ecosistemas terrestres de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Propuesta de Gestión. Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Gobierno Vasco. Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. Informe inédito.
- Garaita, R. 2009. Migración postnupcial de la espátula en Urdaibai. Informe 2009. Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Gobierno Vasco. Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. Informe inédito.
- Garaita, R., del Villar, J., Prieto, A., García, J. I., Olartekoetxea, K. y Zarraga, M. 2002. Migración postnupcial de la espátula en Urdaibai. Informe 2002. Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Gobierno Vasco. Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. Informe inédito.



